Herritarrentzako Zerbitzuak Batzorde informatzaileak 2021eko urriaren 14an egindako ohiko bileran, honako irizpen hau eman zuen:

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax: 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

x.- Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzen behin betiko ebazpen-proposamena.

**Gaiaren azalpena**

2015. urtetik urtero egin den bezalaxe, 2021. urtean Hernaniko Udalak gazteei nahiz helduei zuzendutako dirulaguntza hauen deialdia argitaratu zuen (GAOn, 2021eko martxoaren 18an).
Eskariak aurkezteko epea amaituta, espediente guztiak teknikoko aztertu ziren, oinarrietan eta deialdian zehaztutako irizpideak aplikatuz.

Herritarrentzako Zerbitzuak Batzordeak 2021eko irailaren 16ean Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzen behin-behineko ebazpen-proposamenaren inguruan irizpena eman zuen.

2021eko irailaren 17an 2021/1184 DEKRETU bidez behin-behinekoz 86 eskari onartu eta dirulaguntza ematea onartu zen; 11 eskari behin-behinekoz ez onartzea eta dirulaguntza ukatzea erabaki zen.

2021eko urriaren 5ean interesatuek egoki iritzitako alegazioak egiteko epea amaitu zen. Guztira hiru alegazio jaso dira epe barruan.

Oinarri arautzaileen 13. artikuluak dioena ikusita, eskarien zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditu duenez, %24,12ko doiketa egin da onuradunen artean hainbanatuz.

Oinarri arautzaileen 18. artikuluak dioena ikusita, ondorengo ebazpen-proposamena egin da. (Jarraian jasoa dago).

**Proposamena**

**Horiek horrela, hau erabaki da xxxxxxxxxx:**

1.- Alkateak, Alkate dekretu bidez onar dezala behin-betiko ebazpen hau.
2.-Horrela balitz, Kontu-hartzailetzari berri ematea.
3.-Interesatuei berri ematea.

<u>Lehenengoa.-</u> Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzen eskatzaileek aurkeztutako eskariak eta dokumentuak aztertuta, eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatuta, **I. eta II. eranskinetako** dirulaguntza eskariak **behin-betikoz onartzea eta dirulaguntza ematea onartzea**, norbere agiriak dagozkion epeetan aurkezten baditu.

<u>Bigarrena.-</u> Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzeko diru-laguntzen eskatzaileek aurkeztutako eskariak eta dokumentuak aztertuta, **III. Eta IV. eranskinetako** dirulaguntza eskariak **behin-betikoz ez onartzea eta dirulaguntza ukatzea**, eskatzaile bakoitzari zehaztutako arrazoiengatik.

<u>Hirugarrena.-</u> Dirulaguntza onartu den kasu guztietan, eskatzaileek ondoren azaltzen diren epe hauek bete eta dokumentazio hau aurkeztu beharko dute Udalak ordainketak bideratu aurretik.

Dokumentazioa aurkezteko <u>**epeak**</u>:

Lehenengo ordainketa agindu ahal izateko: Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Frogagiriak erregistratzeko epea urriaren 21ean amaituko da. Agiriak aztertuta, lehen ordainketa aginduko da, data horretara arte egiaztatutako alokairu gastuen araberako proportzioan. (2021eko urtarriletik hasita abuztura bitarte.)

Bigarren ordainketa egin ahal izateko hurrengo egiaztatze-agiriak beranduenez ere diruz lagunduko den epea amaitu eta hilabetera erregistratuko dira (2022ko urtarrilaren 31rarte), bestela dirulaguntza bertan behera geratuko da. Agiriak aztertuta, dirulaguntzaren gainerako zatiari dagokion ordainketa aginduko da. (2021eko irailetik abendura bitarte.)

Dirulaguntza emandakoan, ordainketa bideratu ahal izateko onuradunak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak. (Onuradunaren izenean agindutako banku transferentziaren agiria)
- Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria, data eguneratua duena.
- Diru-sarreren agiriak (nominak, aparteko ordainsariak, etab.) edo norberaren kontura lan egiten duenak Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren ordainagiriak. Langabezian egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbidek igorritako inskripzio-aldien ziurtagiria.
- Gaztelagunera bideratutakoen kasuan, Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Gaztelagun alokairu-laguntza kobratzea dagokion edo ez adierazten duena).
- Beste dokumentuak: onuradunaren egoeran aldaketaren bat izan bada, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera dokumentazio berria aurkeztera behartzen duena.

Gastuak egiaztatzeko fakturak aurkeztuko dira, edo merkataritzako trafiko juridikoan froga balio bera duten edo administrazioaren aurrean eraginkortasuna duten bestelako agiriak, bai jatorrizkoak, bai zigilatutako fotokopiak.

Eskatzaileak agiri justifikagarriak dagokion epean aurkezten ez baditu, dirulaguntza bertan behera geratuko da. Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 37. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Diru-laguntza 2 zatitan ordainduko da: dokumentazio osoa ekarriz gero, aurreneko ordainketa 2021eko urrian hasiko da; bigarrena 2022ko urtarrilean hasiko da.

Laugarrena.- Deialdiaren amaieran dirulaguntza oinarrietan jasotako kreditu osotik erabili gabe dagoen kopurua, oinarri arautzaileen 13. artikuluaren baitan banatuko da.

Bosgarrena.- Ebazpen-proposamen hau interesatuei jakinaraziko zaie, Hernaniko Udaleko iragarki-taularen edota web-orriaren bidez.

## I. eranskina - Onartutako dirulaguntza eskariak

Eskatzaile hauen diru-laguntza eskariak onartuak izan dira, zehaztutako kopuruekin. Kasu hauetan guztietan dokumentazioa behar bezala osatuta dago eta oinarri arautzaileek nahiz 2021 urteko deialdiak zehaztutako baldintzak betetzen dituzten espedienteak dira. Zehaztutako kopurua mantenduko da, horretarako behar diren zirkunstantziak mantentzen diren bitartean.

| Espediente zk. | Urte osorako gehienezko diru-laguntza |
|---|---:|
| 2021EADE0001 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0002 | 341,42 € |
| 2021EADE0003 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0004 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0005 | 1.365,66 € |
| 2021EADE0006 | 2.276,10 € |

| | |
|---|---|
| 2021EADE0007 | 910,44 € |
| 2021EADE0009 | 1.365,66 € |
| 2021EADE0011 | 1.536,37 € |
| 2021EADE0012 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0013 | 1.820,88 € |
| 2021EADE0015 | 1.365,66 € |
| 2021EADE0016 | 1.365,66 € |
| 2021EADE0018 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0019 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0020 | 910,44 € |
| 2021EADE0021 | 614,55 € |
| 2021EADE0022 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0023 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0024 | 910,44 € |
| 2021EADE0026 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0027 | 1.707,08 € |
| 2021EADE0028 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0030 | 839,65 € |
| 2021EADE0031 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0032 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0034 | 1.820,88 € |
| 2021EADE0035 | 910,44 € |
| 2021EADE0036 | 1.593,27 € |
| 2021EADE0037 | 1.820,88 € |
| 2021EADE0039 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0040 | 682,83 € |
| 2021EADE0043 | 1.911,92 € |
| 2021EADE0045 | 341,42 € |
| 2021EADE0046 | 2.086,43 € |
| 2021EADE047 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0048 | 1.820,88 € |
| 2021EADE0049 | 758,70 € |
| 2021EADE0050 | 1.479,47 € |
| 2021EADE0051 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0052 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0054 | 2.276,10 € |

| | |
|---|---:|
| 2021EADE0056 | 1.820,88 € |
| 2021EADE0057 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0058 | 910,44 € |
| 2021EADE0059 | 910,44 € |
| 2021EADE0060 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0062 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0064 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0065 | 1.206,33 € |
| 2021EADE0066 | 910,44 € |
| 2021EADE0067 | 1.365,66 € |
| 2021EADE0069 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0073 | 910,44 € |
| 2021EADE0077 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0079 | 1.365,66 € |
| 2021EADE0080 | 1.820,88 € |
| 2021EADE0081 | 1.456,70 € |
| 2021EADE0083 | 628,77 € |
| 2021EADE0085 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0087 | 887,68 € |
| 2021EADE0088 | 591,79 € |
| 2021EADE0089 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0090 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0091 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0093 | 853,54 € |
| 2021EADE0094 | 1.820,88 € |
| 2021EADE0095 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0096 | 1.729,84 € |
| | **106.373,87 €** |

**II. eranskina.- Onar daitezkeen dirulaguntza eskariak, baina beste dirulaguntza batzuk jasotzeko aukera izan dezaketenak**

Eskatzaile hauen dirulaguntza eskariak onartuko dira, baldin eta beste dirulaguntza bat (Gaztelagun) jasotzeko eskubiderik ez badute. Dirulaguntza onartua izan dadin ekarri beharko dute Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Gaztelagun alokairu-laguntza kobratzea ez dagokiola adierazten duena) frogatzeko ez dutela beste dirulaguntzarik jasotzeko eskubiderik.

| Espediente zk. | Urte osorako gehienezko diru- |
|---|---|

| | laguntza |
|---|---|
| 2021EADE0010 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0014 | 758,70 € |
| 2021EADE0017 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0029 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0033 | 1.820,88 € |
| 2021EADE0038 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0041 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0042 | 910,44 € |
| 2021EADE0055 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0061 | 758,70 € |
| 2021EADE0068 | 1.479,47 € |
| 2021EADE0071 | 1.138,05 € |
| 2021EADE0074 | 1.365,66 € |
| 2021EADE0076 | 1.365,66 € |
| 2021EADE0082 | 1.047,95 € |
| 2021EADE0084 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0086 | 2.276,10 € |
| 2021EADE0092 | 1.138,05 € |
| | **26.578,21 €** |

**III. eranskina.- Ukatuak, eskatzaileek dagoeneko beste gizarte dirulaguntza batzuk jasotzen dituztelako**

Eskatzaile hauen dirulaguntza eskariak ukatuak izan dira, Lanbidek kudeatzen dituen beste gizarte dirulaguntzak dagoeneko jasotzen dituztelako.

| Espediente zk. | | Azalpena |
|---|---|---|
| 2021EADE0070 | Ezeztatuta | DBE jasotzailea |

**IV. eranskina.- Ukatuak, baldintzak ez betetzeagatik**

Eskatzaile hauen dirulaguntza eskariak ukatuak izan dira, oinarri arautzaileen 5. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituztelako.

| Espediente zk. | | Azalpena |
|---|---|---|
| 2021EADE0008 | Ezeztatuta | Gehienezko diru-sarreren kopurua gainditzen du. |
| 2021EADE0025 | Ezeztatuta | Errolda eta kontratua ez datoz bat adin nagusikoei dagokionez. |
| 2021EADE0044 | Ezeztatuta | Errolda eta kontratua ez datoz bat adin nagusikoei dagokionez. |
| 2021EADE0053 | Ezeztatuta | Gehienezko diru-sarreren kopurua gainditzen du.<br>Alokairu-gastuei dagokionez gehienezko kopurua gainditzen du. |
| 2021EADE0063 | Ezeztatuta | Errolda eta kontratua ez datoz bat adin nagusikoei dagokionez. |
| 2021EADE0072 | Ezeztatuta | Ogasun betebeharrak eguneratuak ez izatea. |
| 2021EADE0075 | Ezeztatuta | Gehienezko diru-sarreren kopurua gainditzen du. |

| | | |
|---|---|---|
| 2021EADE0078 | Ezeztatuta | Ogasun betebeharrak eguneratuak ez izatea. |
| 2021EADE0097 | Ezeztatuta | Ogasun betebeharrak eguneratuak ez izatea. |